

ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 6

UDA BEROAN URA FRESKAGARRI

Abuztuarekin batera, irailera bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Irailaren 8an hartuko duzue hurrengo ТТИПИ-ТТАРА. Bitartean uda ona pasa!



TELEFONO GIDA

Erratzu, Goizueta eta Elizondoko udako uholdeak hizpide herritarrekin / 3

Arantza Rock jaialdiaren 25. edizioa abuztuaren 20an / 8



ZOZKETA / 32

On-line kanpainak garatzen ditugu, zure enpresaren erakusleihoa eskura

WHATSAPP kanpainak

SARE SOZIALETAKO kanpainak

MIKRO-WEBAK eta BIDEOAK

ANIMAZIOAK





1913ko ekaineko uholde hark desagertzekotan utzi zuen Erratzu. FOTO MENA ELIZONDO ETA FELIX MENA MARTIN

Udan ere uholdeak izaten dira

1913ko ekainean Erratzun, 1947ko abuztuan Goizuetan eta 2014ko uztailean Elizondon izandako uholdeen harira, Erratzun bizi den Idoia Eskuderoen, Milagros Narbarte goizuetarraren eta Mikel Sobrino elizondoarraren testigantzak bildu ditu ТТИPI-ТТАПАК

G. PIKABEA

Udako uholdeak ez dira fenomeno berriak. Denbora laburrean botatako euri erauntsiarekin disgustu bat baino gehiago izan dituzte herritarrek. Horren adibide dira, bertzeak bertze, 1913ko ekainean Erratzun eta Elizondon; 1947ko abuztuan Goizuetan edo orain berriki, 2014ko uztailean, Elizondon gertatutakoak. Urteak pasatuta ere, herritarren oroimenean gelditu dira.

Idoia Eskudero 1913ko ekainaren 2ko Erratzuko uholdeez

«Goizetik egun arraroa omen zen, egun beroa eta laino itsusiak ikusten omen ziren Auza aldean. Asots haundia aditu zen herrian, inork ez zekien nondik heldu zen», baina fite jakin zuten jatorria. Idoia Eskudero Martinen arabera, hala ernatu

zen 1913ko ekainaren 2a Erratzun. Iruritarra da sortzez, duela 25 urte Erratzun bizi dena, baina ezaguna du duela 109 urte gertatutakoa, bertzeak bertze, uholdeen mendeurrenaren harira osatu zuten lantaldeko kide izan zelako, eta «etxez etxe familia bakoitzaren bizipenak biltzen» ibili zelako: «Ez ditut sekula atzenduko etxeetako adineko jendearekin egindako solasak. Denek ireki ziguten etxea beraien historia ttikia konpartitzeko».

«Aduanan zegoen karabine-ro batek» eman omen zuen

«MILAKA BIZIPEN DAUDE, ETXE BAKOITZEAN BAT»

IDOIA ESKUDERO, ERRATZU

heldu zenaren lehendabiziko abisua, «zein zapata paratu jakiteko leihotik begiratu eta Auzatik herrira mantso-mantso animaleko olatua heldu zela ikusi zuenean». Orduantxe hasi zen kalbarioa. «Ahal zuten moduan herritarrei abisatzen hasi ziren jendeak babesa bilatzeko; eskopetarekin airera tiroak botatz, etxez etxe abisua eman ez...». Eskuderoen hitzetan, «istantean olatua herrian zegoen: hamabi metroko zabalera eta sei metroko altuera hartu zuen eta erreka bideari segituz, herri osoa zeharkatu zuen».

«FAMILIA AUNITZ MISERIA GORRIAN GELDITU ZIREN»

IDOIA ESKUDERO, ERRATZU

Jendeak «sabaietan» hartu omen zuen babesa, eta «etxetik kanpo landetan lanean ari zirenek mendira jo zuten. Etxeetako lehenbiziko solairuraino ailegatu zen ura, eta bidean harrapatu zuen guzia eraman zuen: landak harriz beteak, ukuiluetan zeuden aziendak itota, etxe batzuk osorik eramana, bertze batzuk zaborrez beteak, zubiak hautsiak, ezin herrian ibili, karrikak arbolez eta harriz beteak, frontoia leher-tua, elizaren zati bat olatuak eramana... Erratzutik Bertze-ra zubi bakarra gelditu zen xutik, Arizkungo Ordokikoa».

Xehetasun eta anekdota andanaren jakitun da Eskudero: «Uholdearen momentuan lehenbiziko meza akitua zen, eta apezka, deus ikusi gabe, sargarioa besoetan hartu eta lasterka abiatu zen elizako atera. Elizaren erdian zegoelarik uholdeak aldarea eraman zuen. Erratzuko elizako sainduaren arrastoak Hondarribian harrapatu zituzten». Jendearen sufrimendua agerikoa izan zen: «Ostatuan bizi zirenak leihotatik barriedeengandik agurtzeko 'Bertze bizitzara arte' oihukatzen zuten. Edo Berekoetxeko haurraren kasua ere berezia da: «Berekoetxean haur sortu berria zuten, eta etxean barna gelaz aldatzen ibili omen zuten. Ez zekiten erreka ondoko gelan utzi edo kontrakoan. Hondarrean erreka ondoko gelan utzi zuten eta uholdeak bertze aldekoa eraman zien. Horrelako milaka bizipen daude, etxe bakoitzean bat».

Kalte material haundiak

«Ez zen inor hil», baina kalte materialak «izugarriak» izan ziren. «Familia aunitz miseria gorrian gelditu ziren, dena galdu zuten, eta beti bezala, jende arrunta izan zen gehien sufritu zuena. Gehienak maizterrak ziren, lau oilorekin eta baratze-tik bizi zirenak, eta uholdeak dena eraman zien. Nagusien landak eta aziendak zaintzen jende aunitzek egiten zuten lan, eta haiek ere lanik gabe gelditu ziren».

→ Ondoko egunak «latzak» izan zirela dio Eskuderok: «herria beldurtzeko isiltasunean sartu zen, ezjakintasuna handia zen, herritik beheiti ez zekiten zer gertatu zen, ezin ziren etxeetatik atera, ez zekiten baserriko jendea nola egon zuten... Apeza elizaren aldean gelditu zen eta erreka-ren bertze aldean gelditu zirenak ongi ziren jakiteko modua asmatu zuen. Paper batean idazten zuten eta hari bati lotuta botatzen zuten erreka-ren bertze aldera». Bateko eta bertzeko, «urteak pasatu ziren herria bere onera bueltatzeko. Eliza bi urte kostatu zen berritzea, frontoia lau urteren buruan berritu zuten...». Ez hori bakarrik, familia aunitzek herritik alde egin omen zuten: «beldurra ezin izan zuten gaititu eta batzuek Ameriketara, bertze batzuek Frantziara... emigratu zuten».

Kolpe handia izan zen erratzuarrendako, Eskuderoren arabera, «indarririk gabe» gelditu ziren, eta gehiago ere bai: «Momentu hartan Erratzu desagertuko zela pentsatu zuten denek». Zorionez, ordea, «mantso-mantso indarrak berrituz eta beldurrak galduz» egoerari buelta eman zituen: «Irundik trenbideko langileak laguntzera etorri ziren, militarrek ere bai, Baztango herri guzietatik hurbildu zen jendea auzolana... Azkenean, izugarritzko esfortzuarekin, herria berpiztu zen». Eta horixe da, hain zuzen, nabarmendu nahi izan duena: «laguntasuna, auzolana eta jendearen indarra».

Milagros Narbarte 1947ko abuztuaren 24an Goizuetan zen «Izugarria izan zen, orduko zaharrek sekula ikusi ez zutena». Halaxe oroitzen du Milagros Narbarte Makazaga Goizuetako Barrenetxekeoak 1947ko abuztuaren 24a. «San Bartolome Eguna zen, haurra nintzen eta orain badut adina, baina hura oroitzeko oraindik arrunt ongi nago».

«Izutua» egon omen ziren etxean. «Baserrian bizi zen atta-



2014ko uztailaren 4ko uholdeak gogor astindu zuen Elizondo. Baina herritarrek ongi erantzun zuten. JUAN MARI ONDIKOL

ren arreba ezkongabea 10:30eko mezara etorria zen, eta gure etxean zegoen. Attak elizara joaterik ez zuela izanen esaten zion, ordurako Zubi Haundian ura gainezka egiten hasia baitzen». Zubia ez ezik, plaza eta eliza ere hartu zituen urak: «Elizan aldareraino ailegatu zen ura, eta elizako aulkiak airean ur gainean eliza guzitik ibili ziren. Sepultura bat edo beste ere urak eramane zituen».

Baditu orduko anekdota ugari. Apezarena, adibidez. «Apeza ttiki bat izaten zen, eta elizan ura goiko koskaraino ailegatzen hasi zenean, Sukuntza izeneko herritar batek, altua, indartsua eta korrikalaria bera, apeza bizkarrean hartu eta kalizarekin korura igo zuen. Han kaliza gordeta, atzera berriz bizkarrean hartu eta kanpora atera zuen». Amaren elizako buelta ere go-goan du: «Denbora haietan elizaren erditik goiti bankuak izaten ziren eta han gizonak jartzen ziren; erditik beheiti, berriz, aulkiak eta haietan ema-

kumeak. Familia bakoitzak bere aulkia izaten zuen, eta gure amagonea goiti egin, botak paratu eta hantxe joan zen bere aulkia hartzera. Oso fededuna zen eta etxera ekarri zuenean oso pozik gelditu zen. Gu ere bai, noski, ongi ailegatu zelako».

Gainerakoan, etxean ez omen zuten arazorik izan urarekin, baina hortxe-hortxe: «Gure attak etxean obra egiteko egurra eskatua zuen, eta ekarri zituztenean, zubiaren ondoan, pilatan paratuak egon ziren. Kasualitatea izanen da, baina attak uholdeak gertatu aurreko astean ekarri zituen etxe aurreko zerrategira, eta eskerrak. Gainerakoan, galera ederra, urak etxeko material guzira eramane izanen zuen. Zorionez, gaur oraindik hemen daude».

Ondorena «Oso denbora gutxian, baina arrunt gutxian hartu zuen urak dena», dio goizuetarrak: «Atera kontuak, baziren zubiaren beste aldeko auzoetatik

10:30eko mezara etorritakoak, eta etxera ezin bueltatu gelditu ziren. Pentsatu zein nahigaberekin egon ziren». Eta nola diren kontuak, «egun hartako arratsaldean bertan ura jaitsia zen eta ondoko egunetan ikaragarritzko eguraldi ederrak egin zituen».

Kalteak, ordea, nabarmenak izan ziren: «Aziendak itoak, zenbait tokitan artoa galdua, erortzak nonahi, Maleneko eta Alduntzingo zubiak urak eramane, errepidearen puska bat eramane...». Urik, argirik eta telefonorik gabe ere egon ziren: «Alduntzingo zentraletik izaten zen Goizueta guziko argia, eta askotan egoten ginen argirik gabe urak hartzen zuenean. Baina pasatzen zen. 1947koa desastrea izan zen. Ahal den bezala kableak tiratuta behin-behinean paratu zuten, baina ongi paratzeko denbora franko pasatu zuten. Dena arreglatzeko bidea izan zen, baina kalteak izugarriak izan ziren».

Izan ere, orduan «orain bezalako makineriarik ez zen izaten, eta bi urte bederen pasatu zituzten lanak egiten. Lehenbizi baserriarrentzako pasadizoa egiten hasi ziren, beheko zubia urak eramane baitzuen. Ez dakit zenbat bide eskuz egin behar izan zituzten.

«ARRUNT DENBORA GUTXIAN DENA HARTU ZUEN URAK»

MILAGROS NARBARTE

«BI URTE BEDEREN PASATU ZITUZTEN LANAK EGITEN»

MILAGROS NARBARTE

Ez zen bromarik...». Gaineratu duenez, «Beheko zentrolean, elektrika deitzen zenean, neurria paratua da 1947an ura noraino ailegatu zen ikusteko».


Presatarteko

Narbarteren hitzetan, orduko presakzerikusia izan omen zuten gertatu zenarekin: «Orain ez dago presarik, eta orain bezala izan bazen, ez omen zen horrelakorik gertatutako. Nafarroako Diputazioko teknikariak ura horrenbeste altxatzeko zer pasatu zen ikustera etorri ziren, altura handia baitago plazaraino. Orduan esan omen zuten presagatik izan zela».

Geroztik uholde gehiago eza-gutu ditu goizuetarrak, eta dioenez, «beti beldurra izaten duzu, baina arinagoak izan dira». Horren harira, 1983ko euriteen ondorioak ekarri ditu gogora: «Gure etxearen gaineko aldean zegoen belarsoro bateko txabola goitik beheiti erortzen ikusi nuen. Izugarritzko soinua ateratu zuten, baina beheko bidean gelditu zen. Erortze asko izan ziren, bideak hondatu ziren eta izututa egon ginen. Baina ez zen 1947koa bezalakoa izan, ezta gutxiago ere». Gehiago ere kontatu du: «1947koa Goizuetan gainean lehertu zen hodeia izan zen, gutxi gorabehera zirkulu batean gertatu zena, gure atea eta amak esaten zuten bezala, goitik lapitzarekin bueltan hartuko bagenu bezala. Goiko baserrietan euria normal egin zuten, baina herrian kalteak handiak izan ziren».

Mikel Sobrino 2014ko uztailearen 4an Elizondon gertatutakoaz

2014ko uztailearen 4an gertatu zenak hankaz goiti jarri zuten Elizondo. Herriko alkatea zen orduan Mikel Sobrino Urrutia eta Maider arrebarren deiak bakantzetan harrapatu zuten. «Zuzenean abiatu nintzen honat eta bidaia guziaz telefonoari lotua pasatu nuen». Kontatu duenez, «gertatzen ari zenaren ardura guziaz udalak hartu zuten» baina berak eta arrebak Fantxiken, dendan, gertatzen ari



Milagros Narbarte goizuetarra.

zenari egin behar izan zioten aurre. «Bagenuen nahiko saltsa».

Beraien kasuan, Mari Joxe langilearen deiak mugiarazi zituen: «Mari Joxek Beartzundik deitu zuen, euria leher ari zuela, eta erreka inoiz ez bezala heldu zela. Maider kanpora atera eta oraino erreka mugitu gabea zela ikusi zuen. Euri tanta batzuk hasiak ziren, baina inondik inora ezin zen aurreikusirik heldu zena». Mari Joxek kontatutakoarekin, «badaezpada zerbait egiten hasi zen Maider. Familiakoen eta Mari Joxeren familiakoen laguntzarekin gauzak goratzen hasi ziren». Hasmentan pentsaezina zirudiena «hamar minutuko afera izan zen».

Gogoan du etxerako bidea «ordu erdiro Maiderrekin telefonoz solastatu» pasatu zuela. «Bera zen gertatzen ari zena bertatik bertara ikusten ari zena eta aunitzez ere urduriago zegoen. Ni kotxean izatea ongi etorri zen. Halakoetan burua hotz edukitzeak laguntzen du».

«ARRAS MOMENTU LABURRA IZAN ZEN BAINA GOGORRA

MIKEL SOBRINO, ELIZONDO



Mikel Sobrino elizondoarra.

Momentu laburra baina gogorra

Uztaileko egun hartan «Auza parean lehertu zen hodeia. Handik erreka batean moduan goitik beheiti jautsi zen, lehenik Erratzura eta Beartzunera eta poliki-poliki Elizondora. Ura Elbetetik heldu zen, eta zahar etxean hasi zen, udaletxe aitzineko karrika erreka bihurtu zen... Gure dendara ura sartzen hasi eta 25-30 minutuz dendako mostradore parera ailegatu zen; metro bateko altuera hartuz, eta botika parean, metro bat eta erdi hartuko zuen. Jaime Urrutian segitu zuen urak, Txokotoko zubi gainetik pasatu zen, ikastolako parkean gainezka, kotxeak karrikan... Dena erreka bihurtu zen. Arras laburra izan zen, baina gogorra».

Badute uholdeekin eskarmen-tua Frantxikekoek: «Lehendenda amatxiren etxean izaten genuen, eta hori da Elizondoko punturik baxuena. Uholde dezente pasatu ditugu, eta guti goiti-beheiti badakigu zer goratu lehenik, zer gero...». Horrez

«UHOLDEAK GERO ETA MAIZAGO PASATZEN DIRA»

MIKEL SOBRINO, ELIZONDO

gain, «Mari Joxek lehenagotik abisatu» izana gakoa izan zen: «Horri esker gauza aunitz salbatu genituen. Baina metro bateko altueran ura sartuta kableak eta gauza aunitz hondatu zitzaizkigun. Bertze batzuek ez zuten astirik izan erreakzionatzeko. Garaje aunitz urpean gelditu ziren, Urpe eta Urgain elkarteak sabairaino urez beteak... Kalte handiak izan ziren».

Auzolana

Baina «saltsaren» gainetik, «jendearen elkartasuna eta laguntzeko prestutasuna» nabarmendu «eta eskertu» nahi izan ditu: «ikaragarria izan zen. Jende aunitz aritu zen auzolanean, kristoren antolaketa izan zen, eta Elizondon aunitzetan aipatu izan dugu biharamunean ez zela deus gertatu iduri zuela». Hain zuzen, urtebete beranduago orduko hartan gertatutakoa oroitzeko hitzordua antolatu zuten Elizondoko herriak eta Bertan Baztan elkarteak. «Jendearen borondatea eskertu» nahi izan zuten: «Gehienbat kalteak Elbeten eta Elizondon izan ziren, baina bertze herrietatik laguntzera hurbildu ziren».

Uholdeen kontua ez dute berria Elizondon. Eta udako uholdeez ari garela, ezin aipatu gabe utzi bi hildako eragin zituen 1913ko ekainaren 2koa; gogor astindu zuen herria. «Elizondoarrek beti izan dugu buruan». Baina gisa berean, azken urteotan «gero eta maizago pasatzen» direla dio. «Udakoak momentukoak dira, aunitzetan arras gogorrak. Baina urte osoan bertze uholde klaseak izaten dira, eta erreka ondoan gaudeenez, arras hurbiletik bizi dugu». Datuak ere eman ditu: «Azken hamabortz urteotan sei edo zazpi izan dira. Dena gero eta muturrekoagoa da, eta horren ondorio dira uholdeak. Herria erreka bazterrean eraiki zenean, ez zen horrenbertze etxe eta ihesbide gehiago ziren. Urteen poderioz aldatu da, eta kontrolatu ezin dena kontrolatu nahi dugu. Ez dago erremediorik eta horren prezioa argia da».

I.M. RRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052 ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

PRIMI ostatua
Ongi pasa bestak!
Goiko karrika, 7 · ARANTZA · T. 948 634 052

Ansoenea ostatu jatetxea
Ongi pasa bestak!
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

Burlada ostalua-jatetxea
BOKATAK · PLATER KONBINATUAK · KARTA · MENUA
ongi pasa bestak!
BEREZITASUNAK MENU BEREZIAK
Haragiak Taldeak
Arrainak Mendizaleak
Etxeko Postreak Jauritzteak
Olorduak
T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com

ilargi okindegia APEZENA
Ongi pasa bestak!
Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA

Arantzako bestak 2022



egitaraua

Abuztuak 12, ortziralea
12:00etan txupinazoa eta azken bes-
tez geroztik jaiotako haurrei ongietorria.
12:05ean herriko dantzarien emanaldia.
14:00etan herri bazkaria Goiko Karri-
kan, Arantzako produktuekin osatua eta
Bankako Menditarrek alaitua. 17:00etan
kartel erakusketa eta jokoak herriko
etxe gorapean. 18:00etan ginkana eta
zezena herriko plazan. 20:00etan musika
plazan: Belfast. Ondotik zezensuzkoa.
00:00etan musika plazan: Belfast.



Abuztuak 13, larunbata
10:00etan diana. 11:00etan haurren
herri lasterketa: 2008az geroztik jaiota-
koak. 12:30ean luntxa lasterkarietzat
herriko plazan. 14:00etan elkartasun
bazkaria Ekaitza Elkartearen. 16:00etatik
19:00etara puzgarriak. 17:00etan herri
kirolak frontoian. Sarrera 2 euro. Nafa-
rroako gizonezkoen 2. mailako aizkora
txapelketako kanporaketa eta Nafarroako
emakumezkoen txokor biltze txapelke-
ta. 19:00etan presoan aldeko kalejira.
20:00etan kantu poteoa plazatik abia-
tuta. 00:00etan musika plazan: Bizphiru
pelau.

Abuztuak 14, igandea
10:00etan diana. 12:00etan Ekaitza El-
karreak antolatutako pilota txapelketako
finalak frontoian. 17:30ean auzoen arte-
ko desafioa plazan. 20:00etan buruhaun-
di eta trikitalarien kalejira. 20:30ean
musika plazan: Trikidantz. 21:00etan
auzoetako afariak. 00:30ean musika pla-
zan: Trikidantz.

Abuztuak 15, astelehena

10:00etan diana. 11:30ean herriko dantzak frontoian. 17:30ean pilota partidak frontoian. Sarrera 2 euro: Bortzietako gazteboak: Koldo Lakar - Ekai Madariaga vs Eukeni Etxenike - Beñat Etxabide. Neskak: Irantzu Etxebeste - Olatz Ruiz de Larramendi vs Olatz Arrizabalaga - Naroa Agirre. Mutilak: Alberto Ongai - Martxel Iztueta vs Eneko Yoldi - Mikel Beroiz. 20:00etan bertsoak plazan: Nerea Ibarzabal, Amaia Agirre, Sustrai Colina eta Sebastian Lizaso. Gaia jartzen: Patxi Larretxea. 21:30ean zezensuzkoa. 00:00etan musika plazan.

Abuztuak 20, larunbata Arantza Rock

Ilunabarrean Matraka elektrotzarranga herriko karriketan. 22:30ean hasita Modus Operandi, Janus Lester, Kinada eta Patxuko Nice plazan.



Ongi pasa bestak!!

Menua, karta, plater konbinatuak, etxean egindako pizzak, ... taldeak ere hartzen ditugu.

Goiko karrika, 5 • ARANTZA • 948 634 077

Ongi pasa bestak!



aterpe

albergea jatetxea ostalua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

Lu's barra

Zurekin DISEINUAK

Ongi pasa bestak!

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAINUAK, ATEAK, TENATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA
GURE DENDA BERRIAN!

Kantónberri, 3 BERA Tef. 722 52 14 71



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANTZAR ETA BISITARI GUZTIEI

Jaurena

Denda: 948 631 217
 T. 630 136 863
 Julio Caro Baroja, 6 - BERA
 jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
 Erreformak, etxe berriak
 Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
 eta dirulaguntzen gestioa

Ongi pasa bestak!

Manterola
Instalazio teknikoak

ITURBINTZA - DASA - BERDUGALUAK
 AIRE GORRIA
 KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
 ENERGIA BERRIKETAGARRIAK

Zerbitzu antzeko &
 Gramioen koordinazioa
629 449 602



Altzate, 19 • BERA •
 T. 948 630 786



F. LANCHAS

Akutziladorea eta berrizatzaldea
 Parket eta parket flotatzaldea
 Jartzea
 Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

caser
 residencial www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Ertzaintza
- Psikologia
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia
- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa • Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzuak

Bestelakoak

- Ile-apalketa
- Jostuna
- Eriji zerbitzuak-Meza
- Laguntza teknikoan kudeaketa
- Kanpoko laguntza

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 160

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURJIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuak
- Tratamendu estetikoak, armilarma-barizeak eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa
- Ekointerbenzionismoa
- Zainetako utzerak, gabotasun linfatikoak

Telefonoa: 610 549 507

Centro Médico Bera
 San Esteban 17, Bera

Ongi pasa bestak!

«Guretzat aurtengo Arantza Rock berezia da eta bertzeentzat hala izaten saiatu gara»

Jaione MACICIOR
 Gazte Asanblada



«Bertako gazteoi ahotsa emateko» bitarteko egokia iruditzen zaio gazte asanblada Jaione Macicior Mitxelenerari (Arantza, 2002). «Gazteok herriari aunitz eskaini diezaioketugula» dio, eta hala, «gazte asanbladan herriari bizitza emateko aukerak aitzinera ateratzen ahal direla» ikusten du. Hain zuzen horregatik egin zen Arantzako Gazte Asanbladako kide duela hiru urte. Kontatu duenez, taldea «adin aunitzetako 25 bat arantzarrak» osatzen dute, eta «partaidetza erabat libre eta borondatezkoa da».

Ez beti, baina urte aunitzez, «herriko bestetan eta Arantza Rocken» jarri izan du arreta gazte asanbladak. Aurtengo ordea, bertzelako ekitaldiak ere antolatu ditu, «eta harrera ona ikusi dugunez, beharbada gure dinamika aldatuko dugu». Pilota eta frontenis txapelketak dira horren adibide; «espero genuena baino harrera hobea izan dute». Aurrekontuari aurre egiteko lagungarri izan

dira, «nahiko justu» ibiltzen direlako. Baina diru iturri izateaz gain, «polita izan da herriko haur, gazte nahiz helduak elkartzea; herriari hurbiltasuna ematen dio. Arantza bezalako herri ttikietan haur nahiz gazteentzat ez dira gauza aunitz izaten, eta noizbehinka zerbait diferentea antolatzeak herriari bizia ematen dio».

Baina dudarik gabe, bi urteko geldialdiaren ondotik, abuztuaren 20an eginen duten Arantza Rock jaialdia dute bereziki begiz joa. «Urte hasieratik» dabilta bueltara. Aitor du «hasieran martxan jartzea nahiko zaila» izan zela, «bi urtez beterranoek gazte asanblada utzi baitute eta berriak sartu, eta esperientzia duten gutti gelditu dira». Hala ere, alde ona bilatu dio: «Ideia berri gehiago izateko aukera dugul».

Ekain hondarrean jakinarazi zituzten aurtengo taldeen izenak: «Ekitaldia 19:30-20:00 aldera hasiko da, Matraira elektrotxarangarekin eta 22:30ean kontzertuak hasiko dira: Janus Lester, Patxuko Nice, Modus Operandi eta Kinada». Bide batez, hurbiltzeko gonbitea egin du; «Bortzietan Bestabusa ibiliko da. Beraz, garraioa ez da aitzakial». Halere, aurtengo Arantza Rockek, badu bertze berezitasun bat: 25. urteurrena du. Alde horretatik, «guretzat bederen berezia» izanen dela aipatu du, «eta bertzeentzat hala izaten saiatu gara. Bertzelako ekitaldiak antolatu eta kamisetak egin ditugu, aurtengo edizio berezia dela iruditzen zaigu eta». Ez hori bakarrik, «bi urteren ondotik, denok gogoz gaude eta horrek ere bereziagoa egiten du». Hortik haratago, «horrelako egunak herritarren eta kasu honetan gazteen borondatez egiten direla» oroitarazi nahi izan du. Hortaz, «denon artean lan eginez gero» hobe. «Argi dago zuzeneko musikak ez duela lehen zuen indarra, baina kontzertuak, txosna, gazteon borondatea... sustatuz eta baloratuz gero, horrelako ohi-turek segi dezakete. Nori ez zaizkio horrelako bestak gustatzen?» .

Alberto RETEGI
 abokatua
 © 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

LABE ZAR
 Aholkularitza ordezkaritza
 07:15etik aurrera
 Larunbata eta igandak
 08:00etatik aurrera
 948 631 076 • BERA

ETXALARKO bestak 2022



egitaraua

Abuztuak 14, igandea

17:30ean haurren lasterketa. 18:00etan helduen lasterketa. **Ondotik** merienda denentzat. 19:45ean agerraldi isila *Euskal Presoak Euskal Herrirat* lelopean 20:00etan altxaferoa, txistulariak, trikitilariak, Elutxa txaranga, buruhandiak eta kankailuekin animatua. Txanpaina eta goxokiak banatuko dira. 21:30ean herri afaria frontoian. Herri afarian eta ondotik Elutxa txaranga animatuko du giroa. 00:30ean dantzaldia Fan & Go taldearen eskutik.

Abuztuak 15, astelehena

10:30ean diana gaiteroekin, buruhandiekien eta kankailuekin. 11:30ean meza nagusia. 12:30ean Andramari Dantza Taldearen saioa txistulari eta musikariek. **Ondotik** Eskola Zaharreko estalpean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. 18:30ean herri kirolak. Nafarroako herriz herri txapelketaren jardunaldia. 22:00etan su artifizialak, igerilekutik botako dituzte. 20:30ean dantzaldia Gabernarekin. 00:00etan dantzaldia Gabenarekin.

ARROSAMENA ZURGINDEGIA

ONGI PASA BESTAK!

948 635 144 | 680 260 872 | ETXALAR



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa



K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina.tolosaachepare

IRIBARREN

Fabrikazioa, salmenta, instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak



**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU !!**

Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071

info@ventanasiribarren.com

**ETXALARKO EKITATIBA eta HARITZPE OKINDEGIAren partetik
BESTA ONAK PASA! GORA AMA BIRJINA!**



T. 618 778 328 | www.haritzpeokindegia.com



ETXALARKO EKITATIBA

T. 948 635 026



*Etxalarko Udalak
herritar eta bisitari guztiei
besta onak opa diotuzue*

Abuztuak 16, asteartea

10:30ean diana trikitilariekin, buruhandiekin eta kankailuekin. 10:00etan plater tiroketa Domisaintzan Ehiza Elkartearen eskutik 11:00-13:00 eta 15:00-18:00 haurrendako jokoak. 13:30ean Asautiki. 16:30ean eskalada haur eta helduentzat, frontoi gibelesko paretean Miren eta Paxkuren eskutik 17:00etan mus txapeketa. 19:00etan Chuchin Ibañez mariatxi taldearen emanaldia. 20:00 museko sari banaketa. 00:00etan DJ Txingudi.



Abuztuak 17, asteazkena

10:30ean diana herriko txistulariekin. 11:30ean herriko umeen pilota txapelketako finalak, aurre-benjaminak, benjaminak eta infantilak 12:30ean Aitor Danboriena Memorialelako pilota txapelketako finalak. 13:00etan pilota txapelketako sari banaketa. 18:30ean herriko trikitilarien emanaldia. Ondotik merienda eskola zaharrean. 19:30ean saltoka. 00:00etan erromeria Bizphiru Pelau taldearekin eskutik.



Abuztuak 18, ortzeguna

10:30ean diana Elutxa txarangaren eskutik, buruhandiekin eta kankailuekin. 12:30ean mozzorro lehiaketa plazan. 14:00etan jubilatuen bazkaria. 14:00etan asua ermitako zelaian. Plazan ingurutik Elutxa txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelaira. Buelta landatan barna izanen da. 20:00etan dantzaldia Trikidantz taldearekin. 23:30ean dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Herriko Ostatura-Jatetxea

Asteburuko eta eguneroko menuak, Plater konbinatuak, Errazioak, Bokatak, Pintxoak, Hanburgesak, Pizzak... **Eta eramateko janariak ere bai**



Andutzeta, 15 | ETXALAR | T. 948 635 465 | www.etxalarherriko.eus

HERRIKO OKINDEGIA

Euskal Herriko gari mota zaharrak gure erroten ehotuak

- / Espelta Handia
- / Espelta Txikia
- / Florencio Aurrea
- / ARAGON 08
- / Lakaingo biziduna

06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
Tel. 627 03 39 75



ONGI PASA BESTAK!

- 40 logela erabat osatuak (komuna eta TBrekin)
- Ostatura: Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak | Jangela pribatua
- 300 lagunendako bankete-jangela
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, ezkontzetako dantzaleku, konferentziak emateko, ... mota guztietako ekitaldiak



N-121-A • ETXALAR • T. 948 635 000 • F. 948 635 263
www.etxalar.com | info@etxalar.com

«Berezia izaten da Andra Mari eguneko plazako giroa»

Miren Lasaga
Etxalarko gaztea



Herriko bestak maite eta bertan parte hartzea gustatzen zailen neska etxalartarra da Miren Lasaga. Txosnako eta herri afariko antolaketa, dantza... herriko bestetan parte hartzea gustatzen zaio, eta aurten ere batean eta bertean ariko da lanean. Aurtengoak gainera, bereziak izanen dira, urtero bestak «gogoz» hartzen baditu ere, bi urteko etenaren ondotik «oraindik gogo gehiagorekin» hartuko baititu.

Herri afariko antolaketarekin hasiko ditu bestak Lasagak. Besta aitzinetik janari eta edari eskariak eginda, eta txartelak saliduta, abuztuaren 14an afaria prestatzen hasi aitzinetik, «eguna indartsu hasteko» bazkaria egiten dute antolatzaile denek. Arratsaldean taldetan banatuta, iluntzerako mahaiak eta janaria prestatuko dituzte, eta txupinazora joan ondotik berri ere itzuliko dira frontoira dena prest uztera. Denera 200 lagun inguru elkartuko direla kontatu du.

Dantza egitea ere tokatuko zaio Andra Mari Egunean. Egun hori gainera, berezia dela dio: «Tiki-ttikitatik izan naiz dantzaria eta urte aunitzez kanpoan bizi izan naizen arren, ez dut inoiz data horretan huts egin. Berezia da egun horretan plazan izaten den giroa». Aurten ere hartuko du jaialdian parte, adin guztietako bertze 40 dantzarekin batera, eta Euskal Herri osoko dantzak interpretatuko dituzte.

«Ttikitatik dantzaria naiz eta urte aunitzez kanpoan bizi naizen arren ez dut inoiz huts egin jaialdian»

Horrekin aski ez, eta Etxalarko gazte taldearen parte ere bada, eta, beraz, bestetan gazteek paratzen duten txosnaren antolakuntzaren parte izaki, bertako ostatuan ere pixka bat aritzea egokituko zaio.

Bestak hurbil direla, argi du zein den Etxalarko bestetako egun perfektua: «Lagun eta familia giroan mahai inguru batean elkartu, eta herriak antolatzen dituen ekintzetan disfrutatzea». Aurten ere izanen du horretarako aukerarik eta astirik.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanflonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- jaxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean - Herentziak Alokalkuak - Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. **Deitu hitzordua hartzeko**

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaalzuguren@gmail.com

USOA kooperatiba Ongi pasa herriko bestak!

☎ 948 63 52 14 📞 605 63 12 44

948 031 174
info@anelan.pro

Egiten ditugun lanak:

- Fabrika konponketak,
- segurtasun-selemin instalazioak,
- teletuen eta suplegiaren mantentze-lanak,
- eta abar.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia. 23 - BERA
T. (0034) **636 617 450**

IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak

Goikolanda 8A - ETXALAR
T. 637 791 507 - 948 635 256

www.pelletibaztanbidaso.com | etxarte1971@gmail.com

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

arropa-denda
etako osagarriak
lentzena

Aitzate, 30 BERA
T. 948 630 136

Donamariako bestak 2022

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA | 948 631 106 | www.zalain.info

Lizun
GAZTANDEGIA



ONGI PASA BESTAKI!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

sasoi ONGI PASA BESTAKI!
eraikuntzaks.l.

Leku-eder, 5
31791 - SUNBILLA - (NAFARROA)
T.: 948 451 596 F.: 948 456 168
info@sasoi.es

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES



ongi pasa bestak!



Etxebizitzaren eraikuntzak
Teila berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es



Ayuntamiento de Donamaria
Donamariako Udala
Abuztuaren 14tik 18ra

*Besta zorientuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei*



egitaraua

Abuztuak 14, igandea

12:00etan aizkora apustua: Nafarroako Hirugarren Mailako Aizkora Txapelketa eta Txokor Biltze Txapelketa. **Ondotik** ikuskizuna. **20:00etan** txupinazoa eta herriko trikitilarien kalejira. **Afaria** zopak herriko ostatuan **00:00etan** Bizphiru pelau taldea.

Abuztuak 15, astelehena

10:00etan gaiteroak herrian barna. **Ondotik** meza. **12:30ean** dantzariak herriko plazan. **18:30ean** pilota partiduak: Re-tegi II.a - Bergara vs Elizalde - Aldabe. **20:00etan** Hauspolariek.



Abuztuak 16, asteartea

10:30ean herri kroserako inskripzioak. **11:00etan** herri krosa. **13:00etan** paella autogestionatua. **Arratsaldean** elektrotxaranga eta gazte jokoak. **21:30ean** pin-txo potea. **23:00etan** DJ Bull.

Abuztuak 17, asteazkena

Goiz eta arratsaldean puzgarriak plazan eta igerilekuan. **19:00etan** patata tortilla eta postre lehiaketak. **19:00etan** Hauspolariek taldea. **Ondotik** afari herrikoa.

Abuztuak 18, ortzeguna

14:00etan herri bazkaria plazan Zuriñe eta Maialen trikitilariekin, eta Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi bertsolariekin. **Ondotik** arratsaldean eta gauean Fan & Go taldearen emanaldia. **21:30ean** xingar jatea plazan.

DONAMARIAKO HERRIKO OSTATUA

Herriaren erdian dago,
frontoi estaliaren,
udal igerilekuaren
eta haurrentzako
parkearen ondoan.

Etxeko janaria.
Plater konbinatuak,
eguneko menua,
asteburuko menua

Ortzegunetik igandera irekia

T. 948 45 08 90

@donamariko_ostatua



txokoberri
ERAIKUNTZAK

Igeltzeritza lanak
orokorrean

ONGI PASA BESTAKI!

DONAMARIA
676 394 225

Zubietako festak 2022

Abuztuak 14, igandea

09:00etan mendi itzulia. 19:00etan pala txapelketako finala. 20:00etan herriko trikitilariak. 21:30ean zopa handiak Errandonean. 00:00etan arbola albatzea eta joaldunak. **Ondotik** Gabezin musika taldearen emanaldia.

Abuztuak 15, astelehena

08:00etan dilana. 11:00etan meza nagusia. **Ondotik** txistulariak, erraldoiak eta joaldunak. 12:30ean herriaren omenaldia 85 urte bete dituztenei. 13:00etan aizkora apustua Pabí Mindegiaren eta Joxean Etxeberriaren artean. 18:00etan Los Txingones de la Rencle mariatxiak. 00:00etan dantzaldia Modestorekin.

Abuztuak 16, asteartea

11:00etan margoketa tailerra Iciar Mikelerizenarekin. 11:00etan haurrentzako futbito txapelketa. 13:00etan herriko pilotarien arteko pilota partidak. 16:00etan mus txapelketa herriko ostatuan. 19:00etan bertso saioa Julio Soto, Amets Arzallus eta Nerea Ibarzabalekin. Gai jartzen: Bittori Elizalde. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia Hauspolariek taldearekin.

Abuztuak 17, asteazkena

11:00etan haurrentzako jokoak. 14:00etan haur eta gazteen bazkaria. 16:00etan bingoa. 16:00etan plater tiroketa. 18:00etan patata tortilla lehiaketa. 18:00etan txapak egiteko tailerra eta buruhandiak. **Ondotik** tortilla jatea plazan. 22:00etan zezensuzkoa. 23:30ean

egitaraua



Ozpinduk eta Aadriren kontzertua. **Arratsaldez eta gauz** DJ Txingudi.

Abuztuak 18, osteguna

12:00etan Plazaz Plaza Txapelketak pilota partidak. 14:30ean herri bazkaria. 18:00etan txaranga. **Arratsaldez eta gauz** Bizphiru pelaurekin dantzaldia. 22:00etan zezensuzkoa. **Ondotik** xingar jatea. 00:00etan arbola botatzea.

ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUA
Taberna, jantokia eta logelak
Kale Nagusia - ZUBIETA
T. 621254662
herrikostatua@gmail.com

BORDAKO, S.L.
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA
DONOSTIA • T. 943 467 244 | 943 467 444
carnesein@bordako.com

MADERAS SANTESTEBAN ONGI PASA BESTAK!
Mendi lanak (Pinak erosten dira)
Bigak - Montaje obran
Teilaturako egiturak
Izel, hariza eta douglasezkoak edo laminatuak
Osagarriak - Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

Zubietako Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
zubietar eta bisitari guztiei



ANTZUZELAI

S.L.
Ongi pasa bestak!

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

Arrate Estetika Zentroaren partetik



ONGI PASA FIESTAK!!

Ornoz-Mugairiko bestak 2022



Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA

ONGI PASA BESTAK!!

Martin Urrutia • ORNOZ-MUGAIRI • T. 948 59 23 10



OSKORRI
denda

Besta zoriontsuak
opa atzeturtegi!

Martin Urrutia • ORNOZ-MUGAIRI • 644 958 655

MUGAIRE
ZONE AUTO



Gasolindegia
Mekanika azkarra
Gurpilak
Olio aldaketak

T. 948 599 090 • 948 599 236
N-121-B errepidea • ORNOZ-MUGAIRI
centreauto@josenea.es



USTARROZ
DISTRIBUCIONES

Ongi pasa
Bestak!!

Segualde, 19
• 948 59 20 12 • 609 38 58 04 •
Ornoz - Mugairi



TALLERES
olloki.S.L.
TAILERRAK

T. 948 592 339 **ongi pasa bestak!**
Poli. Indus. Zozala - Errota, Pab.1 - Zozala-Ornoz

egitaraua



Abuztuak 12, ortziralea

12:00etan txupinazoa. **Ondotik** kalejira.
14:00etan haurren bazkaria frontoian.
15:00etatik 18:00etara haurren-
dako puzgarriak, motordun motoak, aur-
pegi pintaketa... **Ondotik** merienda.
16:30etan mus partidak Gaztelune elkar-
tean. 18:00etan jokoak. 19:30ean erral-
doien itzulia. 21:00etan baztan zopak.
00:00etan dantzaldia Gabenarekin.

Abuztuak 13, larunbata

14:30ean gazte bazkaria mozorra-
tua. 17:00etan Txorongo txarangare-
kin itzulia. 20:00etan gazteen jokoak.
22:00etan kontzertuak, Koiputre gaua:
Sodade, Zaunka, Kurkuma eta DJ Azeri.

Abuztuak 14, igandea

12:30ean herriko gazteen pilota parti-
dak. 14:00etan zikiro jatea. 16:30ean
mahai-ingurua Aitor akordeolariarekin.
19:00etan aizkora erakustaldia Joxean
Etxeberria eta Hodei Ezpeletarekin.
21:00etan postre lehiaketa. 23:30ean
DJ Txingudi.

Abuztuak 15, astelehena

10:00etan meza nagusia. **Ondotik** erral-
doien itzulia. 11:00etan herriko dantza-
rien erakustaldia frontoian. 12:00etan
luntxa frontoian. 17:00etan palako fina-
lak. 19:30ean Los Gavilanes mariatxiak.
22:00etan karaoke herrikoia beste akaba-
ila emateko.



Asteburuan menu berezia eta karta
Amabirjina egunean menu bakarra:
Sarrerak | Bigarren platera aukeran
Postreak | Edariak eta kafea

Animatu!



Ongi pasa bestak!

ORNOZ-MUGAIRI

948 592 063 - reservas@hotelurgain.com - www.hotelurgain.com

Amairuko bestak 2022

Abuztuak 14, igandea

20:00etan suziariak eta ezkila-jotzea. Kuxkuxtu txaranga herrian barna. 21:00etan baztan zopak Kuxkuxtu txaranga alaiturik (txartelen aurrealmenta herriko elkarteak). 01:00etan gaupasa Iratzer taldearekin (itzulera autobusa herriz herri 04:00etan eta 06:00etan).

Abuztuak 15, astelehena

10:00etan Baztan-Bidasoko XVIII. ardi erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna lehiaketa eta artisauen erakusketa. Zaldi eta behien erakusketa, trikitilarietako alaiturik. 11:00etan meza nagusia. Ondotik Gaztelu taldearen emanaldia elizan. 13:00etan mutil dantzak eta haiketakoak. 17:00etan artzain zakurren desfilea trikitilarietako alaiturik. 17:30ean XLVI. Artzain Zakurren txapelketa, Pabli Etxeberriaren XVII. memoria. 20:00etan herri kirol erakustaldia plazan. Ondotik Artisten gaua: Ainara Maiaren olerkiak eta Pottoka & Eskortzen eta Teresa Urkiolaren musika.

Abuztuak 16, asteartea

11:00etan haurren esku pilota finalak. 12:00etan haurren jokoak plazan. 14:00etan haurren bazkaria elkarteak. 16:00etan haurrendako puzgarri eta karts-ak plazan. 19:30ean txokolata jatea. 20:00etan mubiokoak, gaita, larrain dantza eta mutil dantzak. 20:30ean paella lehiaketa. 23:00etan dantzaldia Bizpiru Pelau taldearen eskutik.

Abuztuak 19, ortziralea

11:00etan mus zimizta. 12:00etan erraldoiak herrian barna. 14:00etan gazteen bazkaria. 17:30ean herritarren arteko jokoak. 19:00etan Matraka elektrotxaranga herrian barna. 21:00etan gazteen afaria elkarteak. 23:00etan kontzertuak: Kamuts, Kilimak eta Kaleko Urdangak. Ondotik besta goitiko ostatuan.

Abuztuak 20, larunbata

12:00etan mus txapelketa finala. 12:30ean XIX. Boneta Jaurtiketa. 14:00etan zikiro jatea Salaberrik alaiturik. 21:00etan gaita, larrain dantza eta mutil dantzak. 00:30ean gaupasa Gabezin taldearekin (gan torri autobusa herriz herri).



egitaraua

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL



@liderahartzklinika

Iturruntzuko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hartzklinika.es



AROZ-BERRI


Ongi
pasa bestak!



EGUR-PROZESADOREA
ORAIN HAUNDIAGOIA ETA AZKARRAGOIA

TAFJUN
www.tafjun.com

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IRURITA
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com



Husqvarna

AUTOMOWER®

BB BLOK BAT
TALLERES

biokbat.com

Santiago 85. ELIZONDO 948 580 898

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua



Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemia...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

SAGARDIKO edariak
ongi pasa bestak!

Balagorri, 9 | 948 59 20 27 • 608 46 64 60

ERREKA-ALDE zurgindegia
Zurgin lanak orokorrean
Teilatua • Sukaldeak • Armairu enpotratuak
Tfnoa: 948 592 070 • ORONOZ-MUGAIRI

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatzadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 • NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

Ongi pasa
bestak!

Graxiana

Jatetxea - Aterpea - Nekazal etxea

ZUGARRAMURDI
675 711 498 - 699 93 10 72
info@graxiano-aterpea.com

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

KATTALIN JATETXEA



Ongi pasa bestak!

Lapiztegia, 6
ZUGARRAMURDI

T. 948 599 146 • 948 599 009

zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostirala arte :
09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata:
09:00-12:30 / 14:00-18:30

ongi pasa bestak!

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

Zugarramurdiko bestak 2022

egitaraua



Agorrilak 14, igandea

10:00etan suziria eta eskea herrian barrena, musikaz alaiturik. Ondotik pintxoak eskean ibili direnendako. 16:00etan haurrentako jokoak frontoian. 18:00etan jokobesta plazan. 19:30ean Matraka elektrotzaranga plazan. 22:00etan piperrada jatea plazan. 00:00etan Tirri&Tery.

Agorrilak 15, astelehena

